



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

# LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PERITUEN, INDUSTRIA-INGENIARI TEKNIKOEN ETA INDUSTRIA-INGENIARITZAKO GRADUDUNEN KONTSEILUAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, mahaikidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, mahaikidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

## Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	1
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK.....	4
A. Sarrera.....	4
B. Izaera eta nortasun juridikoa.....	4
C. Kontseiluaren berezko eginkizunak.....	5
D. Elkargoa elkargokideen lehia bidegabe gisa.....	8
E. Elkargora nahitaez bildu beharra.....	9
F. Eskuordetutako administrazio-eginkizunak.....	11
G. Aldi berean lanbide bat baino gehiago gauzatzea.....	12
IV. ONDORIOAK.....	13

Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuei buruzko txosten hau igorri du 2013ko uztailaren 24ko bilkuran.

## I. AURREKARIAK

1. 2013ko otsailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Saileko Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuen aldaketaren kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.



## II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

3. Gure antolamendu juridikoak profesionalen elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean<sup>1</sup>. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudiaren aldaketa berriak direla eta<sup>2</sup>. Estatuan nahiz EAEn, profesionalen elkargoei buruzko araudia Zuzentarau horren aurretiko beste lege batzuetan oinarritzen da, 1974ko profesionalen elkargoei buruzko Estatuko Legean<sup>3</sup> eta Euskal Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legean<sup>4</sup>, alegia. Dena den, une honetan Zuzentarauaren Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoko hainbat transposizio-arau daude eta horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta, beraz, baita profesionalen elkargoen funtzionamendu-araubidean ere, Paraguas (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeak edo EAeko 7/2012 Legea, batik bat<sup>5</sup>.

4. Profesionalen kontseiluek —profesionalen elkargoak ez bezala, ez dira Konstituzioan aipatzen— araudi bera bete behar dute. Estatuan nahiz EAEn, profesionalen elkargoei eta kontseiluei buruzko araudia zuzentarau horren aurretiko beste lege batzuetan oinarritzen da, 1974ko profesionalen elkargoei buruzko Estatuko Legean<sup>6</sup> eta Euskal

<sup>1</sup> 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.

<sup>3</sup> Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionaleri buruzkoa.

<sup>4</sup> Lanbide Tituludunen, eta Elkargo eta Kontseilu Profesionalen Jarduna arautzen duen azaroaren 21eko 18/1997 euskal Legea.

<sup>5</sup> Azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa (Paraguas Legea); abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueretan aske sartzeari eta aritzeari buruzko Legeari egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena (Omnibus Legea); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentaraua egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena, eta tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 euskal Legea aldatzen duena.

<sup>6</sup> Profesionalen elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. 7/1997 Legea, apirilaren 14koa, lurra liberalizatzeko neurriak ematekoa eta elkargo profesionaleri buruzkoa.



Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legean<sup>7</sup>, alegia.

Profesionalen elkargoei buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan, honako hau jasotzen da, Omnibus Legearen arabera: «elkargodun korporazioak izango dira Elkargoen Kontseilu Nagusia edo Kontseilu Gorena, Estatuko Elkargoak, Elkargoen Kontseilu Autonomikoak eta Profesionalen Elkargoak»

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Gainera, honako hau dio 41. artikuluan: «Lanbideren batek elkargo-antolaketa duen guztietan izango da kontseilu profesionala –bat baino ez– osatzeko aukera. Horretarako, dagozkion elkargo profesionalak batu beharko dira». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulu horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

**5.** Profesionalen Elkargoek eta Kontseiluek araudiari men egitea ez da estatutuen eta Elkargoen eta Kontseiluaren beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzeko testuak araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra baitezakete<sup>8</sup>.

**6.** Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan; hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarrizko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu estatutuetako zer agindutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzak bi aholku mota emango ditu txosten honetan: araudiaren balizko urraketei buruzkoak eta indarrean dagoen legediaren kontrakoak ez diren baina lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte txikiagoa egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

<sup>7</sup> Lanbide Tituludunen, eta Elkargo eta Kontseilu Profesionalen Jarduna arautzen duen azaroaren 21eko 18/1997 euskal Legea.

<sup>8</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Informe sobre los Colegios Profesionales tras la transposición de la Directiva de Servicios*, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



### III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINKO HAUSNARKETAK

#### A. Sarrera

7. Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua profesionalen elkargoak aipatzen ditu:

Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

Dena den, eta II. epigrafeko 4. paragrafoan adierazi den moduan, Konstituzioaren xedapenetan ez dira profesionalen kontseiluak aipatzen; horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutueta 2. artikuluan egiten den konstituzioarekiko aipamena ez da benetakoa.

8. Honako hau gehitzen da 51. artikuluko bigarren paragrafoan: *Kontseilu profesionalek nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dute, eta beren helburua tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea da, betiere, gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta.*

Honela jarraitzen du artikulua beraren hirugarren paragrafoan: Kontseilua sortzeko, kasuan kasuko ekimenak lanbide bera ordezkatzeko duten elkargo guztien aldeko oniritzia beharko du. Sortzeko ekimena onetsi ostean, Kontseilua Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez sortuko da.

Honako hau zehazten da bosgarren paragrafoan: Kontseiluak hura sortzeko dekretua indarrean sartzen den unean bertan izango du nortasun juridikoa; bestalde, bere gobernu-organok sortzen diren momentuan bereganatuko du jarduteko gaitasuna. Dena den, Kontseiluaren sorrera EHAA-n argitaratu beharko da.

Azkenik, honako hau dio seigarren paragrafoak: Kontseiluaren barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseilua azaroaren 21eko 18/1997 Legearen arabera arautuko da, erkidegoko araudira egokitzeko helburuarekin 2012an egin diren aldaketak indarrean sartu ondorengo testuaren arabera, hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutueta ez da oinarritzko alderdi horiei buruzko aipamenik egiten Kontseiluaren sorrerari dagokionez; horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu horiek berariaz adieraztea.

#### B. Izaera eta nortasun juridikoa.

9. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 41. artikuluko bigarren paragrafoaren arabera, kontseiluen helburua da dagokion tituludun lanbidearen ordezkari gorenak izatea eta defentsa egitea, betiere, **gizartearen interes eta premia orokorrekin bat eta lurralde-esparrutzat Euskal Autonomia Erkidegoa hartuta.**



Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuen 2. artikuluko hirugarren paragrafoan agertzen den moduan —sistematika oro alde batera utzita, arau hori Izaera eta nortasun juridikoa izeneko epigrafean agertzen baita—, EAEn lanbidea defendatzea da helburu nagusia, eta, beraz, *ekintza homogeneoa ahalbidetuko duten irizpide komunak kudeatu, koordinatu eta finkatzeaz arduratuko da*, norena izango den zehaztu gabe. Honela jarraitzen du: *bere lantaldearentzat onuragarriak izan daitezkeen ekintza guztiak sustatuko ditu gizartearen eta tokiko, autonomia-erkidegoko, Estatuko edo Europako Erkidegoaren Administrazioaren aurrean, nahiz izaera publiko edo pribatuko bestelako organo, kolektibo, entitate edo erakundeen aurrean*.

Estatutuetao 2. artikuluko hirugarren paragrafoan **gizartearen interes eta premia orokorrekin bat** hitzak gehitzea ahaztu da, baina horrez gain, helburu hori EAEko lurralde-esparrutik haratago finkatzen du.

**10.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen I. kapituluak profesionalen elkargoak arautzen ditu, besteak beste, horien helburua, berezko eginkizunak, izatea, lurralde-esparrua, eta antolakuntza eta funtzionamendua.

Kontseiluaren estatutuetao 2.4 artikuluan zehazten den moduan, Kontseilua osatzen duten profesionalen elkargoek beren eskumenak eta jarduteko askatasuna izango dute Lurralde Historikoko beren lurralde-esparruari bakarrik dagozkien ekintzetan.

Halere, profesionalen elkargoen eskumenak, jarduteko gaitasuna eta lurralde-esparrua zehaztea ez dagokio, inola ere, Kontseiluari; horregatik, estatutuetao 2. artikuluaaren laugarren paragrafoa ezabatu behar da.

### **C. Kontseiluaren berezko eginkizunak.**

**11.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluaaren arabera, kontseilu profesionalen berezko eginkizunak dira:

- a) Lanbidearen arau deontologiko komunak jaso eta sortzea.
- b) Bere estatutuak onartu eta aldatzea eta, atal honetako bigarren zenbakian xedatutakoarekin bat, lanbidearen jarduna arautzea.
- c) Elkargo profesionalen arteko auziak konpontzea arbitraiaren bidez.
- d) Elkargoen ekintzen aurkako errekursoak erabakitzea.
- e) Diziplina-agintea erabiltzea, 19.2 atalaren arabera.
- f) Arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. artikuluaaren arabera.
- g) Kontseiluaren aurrekontuak onartzea eta elkargoek gastuetan izan behar duten partaidetza hein berekoa izan dadin, partaidetza hori zuzen zehaztea.
- h) Jarduera profesionala legezkoa eta egokia den eta elkargo profesionalen funtzionamendua zuzena den begiratzea, helburua herritarrekiko errespetua eta herritarren eskubideak zaintzea izanik. Elkargoen funtzionamenduak eragindako keax konpontzea.
- i) Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea *kultura sustatzeko, gizarte-laguntza emateko, osasun-laguntza emateko eta lankidetzaren indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin*.



j) Beste edozein legeriak agintzen dizkienak.

Gai hori Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutueta 2.3 eta 4. artikuluetan jasotzen da; horietan, 18/1997 Legeak elkargo profesionalen kontseiluei esleitzen dizkien eginkizunak gainditzen dira, eta, beraz, horiek Legeak esleitzen dizkien eginkizunetara egokitu beharko dira<sup>9</sup>.

**12.** Estatutueta 4. artikuluko a) hizkiak lehia mugatu dezake.

4. artikulua. a) hizkia. Osatzen duten elkargo profesionalen eskuduntza berariazko eta eskusiboa ez den guztietan, horien ordezkari izango du edozein instantzia, erakunde, administrazio, talde edo partikularren aurrean.

**13.** Baldintza hori gaikuntzarako baldintza orokor gisa ulertu daiteke —elkargoei arauak esleitzen ez dizkieten eginkizunak gauzatu ahal izateko baimena emanez— eta hori ez litzateke komenigarria izango. Horregatik, estatutuak Kontseiluari esleitzen dion ahalmen hori ezabatzea eskatu da.

**14. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 2. paragrafoaren arabera,** kontseilu profesionalak bere estatutuak onartu eta aldatu ahal izango ditu, eta dagokion lanbidearen jarduna arautu ahal izango du. Kontseilu profesionalak lanbiderako estatutu nagusi bakar bat onar dezakete, baina, horretarako, kide guztien bi hereneko gehiengo behar da; lehenagotik elkargo eta elkargokideen aurrean jarri beharko da informazio publikorako, hilabetez gutxienez, nahi dituzten arazoibideak azal ditzaten epe hori bukatu aurretik. Araudien kasuan oro har egin behar den moduan, estatutu hori indarrean jarriko da Eusko Jaurlaritzak behin betiko onarpen-dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen duenetik aurrera, 18/1997 Legearen 56.3 artikuluan jasotzen den moduan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutueta, 4. artikuluko d) hizkian jasotzen da arau hori.  
Kontseiluak bere estatutuak onartu eta aldatu ahal izango ditu, eta lanbidearen jarduna arautu ahal izango du estatutu nagusi bakar bat onartu ostean.

**15.** Lehiaren Euskal Kontseiluak aurreko hitzak zuzentzea proposatu du, haren edukia azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 2. paragrafoan jasotzen denaren arabera osatu arte.

**16. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 1. paragrafoaren d) hizkiaren arabera,** kontseiluak elkargoen ekintzen aurkako errekurtsioak ebatzi ahal izango ditu.

**17.** Estatutueta 4. artikuluko h) hizkian arautzen da gaia.

4. artikulua:  
h) .....kontseiluaren beraren egintzen aurka jarritako errekurtsioen aurka.

<sup>9</sup> IPN 79/12, Basogintzako eta Natura Inguruneke Ingeniarieen Elkargo Ofizialaren estatutu orokorrak onesten dituen Errege Dekretuaren proiektuari buruzkoa, 7. orria.



**18.** Arestian aipatutako estatutuetako artikuluko hori bere eginkizunak baino haratago doa, eta, beraz, kontseiluaren beraren egintzen erreferentzia ezabatzea proposatzen da.

**19. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 1. paragrafoko e) hizkian** xedatzen den moduan, kontseiluaren berezko eginkizuna da diziplina-agintea erabiltzea, gutxienez, honako printzipio hauetan: errugabetasun-presuntzioan, interesdunari entzutean, amaierako ebazpenaren motibazioan, eta organo instruktorearen eta erabakitzailearen bereizketa egitean. Gainera, ezin izango da zigorrak jarri dagokion administrazio-espeditentari hasiera eman ez bazaio.

**20.** Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuetan diziplina-ahalmena gauzatzea aipatzen da, estatutu horietako bosgarren tituluan ezarritakoaren arabera (Diziplina-erregimena). Diziplina-erregimen hori ez da 18/1997 Legearen 42.1 artikuluko e hizkian eta 19.2 artikuluan zehazten denera egokitzen. Izan ere, diziplina-erregimen hori elkargoetako baten edo Kontseiluaren beraren gobernu-organoko kide baten aurka bakarrik gauzatu daiteke; aitzitik, arau-hausteen tipifikaziotik elkargoko kide ez direnen aurka ere gauzatu daitekeela ondorioztatu daiteke. Lehiaren Euskal Kontseilu honek paragrafo hori Legearen arabera egokitzea proposatzen du.

**21.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 1. paragrafoko f) hizkiaren arabera, kontseilu profesionalen berezko eginkizuna izango da «arau-egitasmoak direla-eta Gobernuak eskatzen dizkien irizpenak egitea, 54. atalaren arabera». Era berean, honako hau adierazten da artikuluko horretan: «Kontseilu profesionalak, edo halakorik izan ezean, elkargo profesionalak *Lege honetako gaiei eragiten dieten* arauetara buruzko proiektu guztiak jakinaraziko dituzte».

**22.** Estatutuetan, 4. artikuluko f) hizkian jasotzen da eginkizun hori.

4. artikulua.

f) Euskal Autonomia Erkidegoak dituen proiektu arautzaileen —lanbideari eragiten dietenen— irizpenak ematea Profesionalen Elkargoei eta Kontseiluari berari.

**23.** Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuetako xedapen horrek lanbideari eragiten dieten proiektu arautzaileetara hedatzen du proiektu arautzaileak jakinarazteko eginkizuna. Eginkizun hori 18/1997 Legean aurreikusten dena baino haratago doa, eta, beraz, hura ezabatzea proposatzen da.

**24. Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko 1. paragrafoko i) hizkian** honako hau proposatzen da: «Hutsuneak betetzeko asmoarekin betiere, kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea kultura sustatzeko, gizarte-laguntza emateko, osasun-laguntza emateko eta lankidetzak indartzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin».

**25.** Estatutuetan, mutualismoa ere gaineratzen da 4. artikuluko n) hizkian.



## 4. artikulua

n) Peritu, Industria Ingeniari Tekniko eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen lanbidearekin zerikusia duten erakundeak, zerbitzuak eta jarduerak sustatu, sortu eta antolatzea gizarte-laguntza emateko, osasun-laguntza emateko, lankidetzaz indartzeko eta mutualismoa areagotzeko. Era berean, lanbiderako komenigarriak diren itun eta akordioak ere egingo dituzte administrazioarekin eta dagozkion erakunde eta entitateekin.

**26.** Profesionalen elkargoei buruzko Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostenak azaltzen duen moduan —2012ko Zerbitzuen Zuzentaraua egokitu ostean—, elkargo baten jarduera profesionalarekin loturiko zerbitzu jakin batzuen eskaintza edo elkargoak bere kideek zerbitzu hori zein enpresarekin sinatu behar duten zehazteak zenbait ondorio kaltegarri eragin ditzake lehiari dagokionez, elkargoek horiek elkargokide izateko baldintza gisa finkatu ala ez.

Zerbitzu eta jarduera horiek onesteko betebeharra ez da legean jasotzen, eta, beraz, ikuspuntu juridikotik ez da nahitaezkoa elkargoko kideentzat. Dena den, zerbitzu horien karga ekonomiko eraginkorrak horiek beren borondatez kontratatu dituztenek bakarrik jasan beharko dituzte, eta ez gainerako elkargokideek. Horregatik, eta profesionalen elkargoen aldetik alor horretako eginkizun bat garatzeko aukera —zerbitzu hori kontratu nahi dutenen mesedetan— berez lehiaren aurkakoa ez izan arren, mota horretako zerbitzuak ez dira inposatu behar, ez juridikoki ezta faktikoki ere.

Bestalde, eginkizun horrek **hutsuneak betetzeko izaera** du, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen arabera. Puntu hori behar bezala jaso behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuetan.

#### **D. Elkargoa elkargokideen lehia bidegabe gisa.**

**27.** Urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeak, lehia bidegabeari buruzkoak, xedatzen duenez, «arauak urratzea» lehia bidegabea izan daiteke.

**28.** Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuetan, 4. artikuluko k) hizkiak arautzen du gaia.

## 4. artikulua.

k) Eskubide eta ordainsariei dagozkien diru-sarrerak ezartzea, eskaintako zerbitzuak eta jarduerak direla eta.

**29.** 4.k artikulua elkargoaren finantziatio-iturri gisa ezartzen ditu Gobernu Batzordeak igorritako azterlan, txosten eta irizpenei dagozkien eskubideak. Artikuluan ez da jasotzen elkargoak gauzatutako lan horien izaera; nolahi ere, horiek izaera profesionaleko lanak badira, elkargokideei dagozkien lan gisa hartu beharko dira, elkargoak ez baitu horiek garatu ahal izateko titulurik. Bestela, Elkargoa bere elkargokideekin arituko litzateke lehian. Kontseiluen estatutuetako arauak oso arduratsuak izan behar dute lehiari buruzko araudiarekin; era berean, profesionalen kontseiluek izaera profesionaleko eginkizunak eta jarduerak garatzen ez dituztela zaindu beharko dute, horiek elkargokideei baitagozkie. Alde horretatik, bi ondorio izan





ditzake Elkargoak perituen, industria-ingeniari teknikoaren eta industria-ingeniaritzako gradudunen berezko lan profesionalak egiteak:

- Elkargoa eragile ekonomiko bat litzateke. Zerbitzuak emateko erreferentziazko eskaintzailea izan liteke, eta profesionalak merkatuan zuzenean parte hartu ahal izateari kalte egin. Jarrera hori are gehiago larriagotu liteke elkargokideek duten eta 14.3 artikuluan jasotzen den «aitorpen profesionalak, kontratuak eta eskatu daitezkeen gainerako dokumentuak» errazteko betebeharra kontuan hartuz gero.
- Elkargoak lehentasuna izango luke elkargoko kideen aurrean, eta hori ez da sustagarria kideentzat. Sistema horren eraginez, zerbitzu jakin batzuk barnean banatuko lirateke, Elkargoak negozioa «beretzat hartuz».

Horrenbestez, eta 4.k artikulua ezabatzea erabakitzen ez bada, honako hau txertatzea proposatzen da: «Eskubide horiek ez dira, inola ere, elkargoak eskainitako industria-ingeniaritza teknikoaren lanbideari dagozkion zerbitzuetatik etorriko».

### E. Elkargora nahitaez bildu beharra.

**30.** Auzitegi Konstituzionalak elkargoei buruzko arauketa konstituzionala jasotzen duen Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua interpretatu eta honako hau finkatu du: «elkargora nahitaez bildu beharra interes publiko bati erantzuteko beharra dagoenean bakarrik izango da konstituzionalki legezkoa»<sup>10</sup>. Horrenbestez, Auzitegi Konstituzionalak **legegilea** gaitzen du, hark, egokitzat jotzen duenean, profesionalen elkargoetan elkartzeko askatasunak eta lanbide-aukeraketa mugatu ditzan —batik bat elkargoko kide egin beharra finkatuz—, betiere lanbide jakin batzuekin loturiko interes publikoek hala justifikatzen dutenean<sup>11</sup>.

*Paraguas Legeak*, hau da, zerbitzuei buruzko 2006/123 Zuzentaraua aldatzen duenak, elkargoko kide egin beharra baimentzen du, salbuespen gisa, honako kasu hauetan:

- Ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumena babesteko arrazoia direla-eta, hala justifikatuta dagoenean. (12. artikulua)
- Eskakizuna diskriminatzailea ez denean (hau da, zuzenean nahiz zeharka, hura diskriminatzailea ez denean, eskumena duen agintaritzaren kokapenaren edo nazionalitatearen arabera). (5. artikulua)
- Beharrezkoa denean (hau da, interes orokorreko premiazko neurriren batek justifikatzen duenean). (5. artikulua)
- Haren helburua lortzeko egokia denean (hau da, nahi den helburua lortu ahal izateko elkargoko kide egitea tresnarik onena denean, eta, beraz, emaitza bera lortzea ahalbidetuko duen neurri hobeagorik ez dagoenean). (5. artikulua)
- Araubide hori zehazten duen Legean behar bezala arazoitzen denean. (5. artikulua)

<sup>10</sup> Auzitegi Konstituzionalaren maiatzaren 11ko 89/1989 Epaia. Zentzu berean, Auzitegi Konstituzionalaren abenduaren 15eko 330/1994 Epaia kontsultatu daiteke, beren borondatez atxikitzea ahalbidetzen duten elkargoak baimentzen dituenak. Era berean, Auzitegi Konstituzionalaren apirilaren 23ko 76/2003 Epaia dugu, Toki Administrazio Idazkariaren, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoei dagokienez elkargora nahitaez bildu beharra konstituzioaren aurkakotzat jotzen duena, lanbidearen antolaketarekin lotuta konstituzionalki garrantzitsuak diren helburu edo eginkizun publikoak garatzen ez dituztelako, hain zuzen.

<sup>11</sup> Ikus, gure mugetatik kanpo, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1983ko otsailaren 10eko Epaia. *As. Le Compte, Van Leuven y De Meyere c. Bélgica*, edo 1993ko ekainaren 30eko epaia, *Sigurdur A. Sigurjónsson c. Islandia*, A seriea, 264. zenbakia; bertan, neurrikanpokotzat jotzen da taxi-gidari bati taxi-gidariaren erakunde batera atxikitzeko legezko betebeharra.



Euskal Autonomia Erkidegoan, eta azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30.1 artikuluari jarraiki, profesionalen elkargo batean txertatu beharra eskatu ahal izango da jarduera jakin batean jarduteko. Xedapen horren arabera, «Lanbide kolegiatuetan jarduteko ezinbesteko baldintza da dagokion elkargoko kide izatea, **dagokion Legean horrela jasotzen duenean**<sup>12</sup>. Horrenbestez, elkargora nahitaez bildu beharra lege mailako arauren batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da egokitzat.

Gainera, elkargoko kide egin beharra lege mailako arauren batean jaso beharko da hark Lehia defendatzeko Legearen 4. artikulua babesa izan dezan<sup>13</sup>.

Oro har, *Omnibus* Legeak sarbidearen eta jardun profesionalaren mugak ezabatu zituen, baina etorkizuneko araudi baten esku utzi zuen jarduera-erreserben eta elkargoko kide egin beharraren aldaketa<sup>14</sup>. Une honetan, eta profesionalen elkargoei buruzko Legearen 3.2 artikulua arabera, Estatuko lege batek hala ezartzen duenean bakarrik eskatu ahal izango da elkargo bateko kide izatea lanbide batean jarduteko. Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak lege arautzen ez diren bitartean, eta *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorri jarraiki, hura indarrean sartu zen unean indarrean zirenak finkatu dira. Horregatik, elkargoko kide izatea beharrezkoa den egoerak mantendu dira, arauan ezarrita ez egon arren, eta, beraz, maila egokia ez izan arren.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen babespean, Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseilua sortu zen izaera ofizialarekin; Kontseilua Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen elkargoei osatzen dute, horien estatutuak onartu ostean, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa duen Zuzenbide Publikoko Korporazio gisa. Kontseiluaren jarduketaren lurralde-esparrua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Elkargo Ofizial guztiek osatzen dute, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruak.

<sup>12</sup> 2013ko urtarrilaren 17ko Auzitegi Konstituzionalaren 3/2013 Epaia (2013ko otsailaren 12ko 37. zenbakiko BOE), Andaluziako profesionalen elkargoei buruzkoa; haren arabera, Estatuaren berarizko eskumena da elkargoan derrigorrez kide egin behar izatea edo salbuespenak finkatzea. Zentzu berean agertzen dira Auzitegi Konstituzionalaren 46/2013 Epaia (Extremadurako legeari dagokionez) eta Auzitegi Konstituzionalaren 50/2013 Epaia (Asturiasko legeari dagokionez).

<sup>13</sup> Aipatutako 4. artikulua horretako “Legeak salbuetsitako jokaerak” epigrafeak honako hau dio: “Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei.” Bestalde, honela jarraitzen du artikulua: “Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira”.

<sup>14</sup> Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorria: “Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira, baina lege-proiektu hori ez da oraindik igorri. Proiektu horretan elkargoko kide izan beharraren jarraitutasuna aurreikusi beharko da hura jardun profesionalaren kontrolerako tresna eraginkorra den kasuetan, horrela, zerbitzuen hartzailak hobeto babesteko; baita interes publiko bereziko gaiak modu larrian edo oso larrian kaltetu daitezkeen jardueretan ere, pertsona fisikoen osasunaren babesa eta osotasun fisikoa edo segurtasun pertsonala edo juridikoa kaltetu daitezkeen kasuetan, adibidez”.



**31.** Estatuetan, honako xedapen hauetan lantzen da elkargora nahitaez bildu beharra:

2. artikulua. 3. paragrafoa. Elkargora nahitaez bildu beharra. Kontseilu profesionalaren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan lanbidearen ordezkari gorenaz izatea eta defentsa egitea da, hura osatzen duten hiru elkargo profesionaletako baten berezko eskumena den berezko gaitan salbu; horrenbestez, ekintza homoginoa ahalbidetuko duten irizpide komunak kudeatu, koordinatu eta finkatzeaz arduratuko da. Bere lantaldearentzat onuragarriak izan daitezkeen ekintza guztiak sustatuko ditu gizartearen eta tokiko, autonomia-erkidegoko, Estatuko edo Europako Erkidegoaren Administrazioaren aurrean, nahiz izaera publiko edo pribatuko bestelako organo, kolektibo, entitate edo erakundeen aurrean.

**32.** Elkargora nahitaez bildu beharrak jarduera gordetzen du elkargokide izan behar duten eta titulu jakin bat eskura izan behar duten profesionalentzat. Lanbidearen jarduera elkargoko kide diren profesionaleri berariaz gordetzeak sartzeko oztopo handiak eragiten dizkie hirugarrenengoei, eta printzipioz, horrek beste lehiakideak eta kontsumitzaileak kaltetzen ditu<sup>16</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatuetan elkargoko kide izatea beharrezko baldintza da Euskal Herrian Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen lanbide arautuan jarduteko. Nolanahi ere, elkargora nahitaez bildu beharraren indarraldiak behin-behineko izaera du, *Omnibus* Legearen laugarren xedapen iragankorraren aplikazio bidez; izan ere, eta oraindik lege mailako Estatuko arau batean jasota ez egon arren, urtarrilaren 24ko 104/2003 Errege Dekretuaren 7. artikuluko lehen paragrafoko bigarren paragrafoaren indarraldia finkatu da, Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialen Estatu Orokorrak onartzen dituen (bertan dagoeneko jasotzen zen elkargora nahitaez bildu beharra)<sup>16</sup>.

Dena den, araudia aldatu aurretik gauzatzen diren elkargo-estatutuen aldaketa guztiek elkargora nahitaez bildu beharraren erreferentziak saihestu behar dituzte edo nahitaezko baldintza horrek lege mailako arau batean zehaztutakoari erantzuten diola gaineratu behar dute; era berean, hark behin-behineko izaera duela islatu beharko da, eskakizun hori lege mailako arau batean txertatu bitartean<sup>17</sup>.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez, paragrafo horretan behar bezala gaineratu beharko litzateke lanbidea ordezkatzeko eskumenak behin-behineko izaera duela —elkargora nahitaez bildu beharra eragiten baitu—, elkargora nahitaez bildu beharra maila egokiko arau batean finkatu bitartean.

## **F. Eskuordetutako administrazio-eginkizunak.**

**33.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 43. artikulua arabera, Kontseilu profesionalak berez Euskadiko administrazio publikoenak diren, hau da, administrazio autonomiko, foru-administrazio edo toki-administrazioarenak diren eginkizun batzuk ere izan ditzakete, hain zuzen ere, 25. artikuluan jasotako administrazio-eginkizunak

<sup>16</sup> 2003ko otsailaren 1eko 28. zenbakiko BOE.

<sup>17</sup> Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena, 44. zenbakia.



elkargoek nola betetzen dituzten zaindu edo koordinatzeko lana, betiere, ebazpen, akordio edo hitzarmen bidez; hura dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da. Eginkizun horiek eskuordetze-xedapenean, -hitzarmenean edo -erabakian aurreikusten diren terminoetan eta irismenarekin gauzatuko dira.

Eginkizun horiek eskuordetze-xedapenean, -hitzarmenean edo -erabakian aurreikusten diren terminoetan eta irismenarekin gauzatuko dira.

**34.** Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutueta 4. artikuluko p) hizkian Legearen arabera aldatu beharko liritekeen zenbait alderdi jasotzen dira, horiek ez baitira azaroaren 21eko 18/1997 Legean jasotakora egokitzen; izan ere, hura askoz zabalagoa da, *lanbidearen babesa edo koordinazioa helburutzat duten* Herri Administrazioen berezko eginkizunak gauzatzeko aukera aurreikusten baita. Berez, 18/1997 Legeak EAeko Administrazioak eskuordetutako eginkizunen elkargo profesionalen jarduerak zaindu edo koordinatzeko lana aipatzen du, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez hala xedatzen denean.

#### **G. Aldi berean lanbide bat baino gehiago gauzatzea.**

**35.** Azaroaren 21eko 18/1997 Legeak lege bidez hala jasotzen denean bakarrik ahalbidetzen du aldi berean lanbide bat baino gehiago gauzatu ahal izateko aukera mugatzea. Honako hau dio **6. artikuluko 2. paragrafoan**: «Kontseilu profesionalak edo, bestela, elkargoek beren kideek bete beharreko beste bateraezintasun batzuk ezar ditzakete estatutuetan, betiere, kasuan kasuko lanbidearen inguruan», dagokion legediak xedatzen duenari jarraiki.

Bestalde, honako hau dio **6. artikuluko 4. paragrafoak**: «Elkargo eta kontseilu profesionalak Autonomia Erkidegoko administrazioari jakinarazi beharko dizkiote ezagutzen dituzten zalantzazko jarduera guztiak, baldin eta jarduera horiek administrazio-zuzenbideak edo lan-zuzenbideak araututako zerbitzu-harremanen bidez euskal administrazio publikoei atxikita dauden profesionalen eginkizun eta ordainsari mailako bateraezintasunen arloan indarrean dauden legeen aurkakoak badira».

**36.** Estatutueta, 4. artikuluan (Xedea eta eginkizunak) arautzen da gaia.

4. artikulua:

- 6 u) Urteko Memorian Gobernu Batzordeetako kideen interesen gatazka-egoerei eta bateraezintasunei buruzko arauak jasoko dira.

**37.** Artikulu hau lehiaren aurkakotzat jo liteke, *bateraezintasunak* esatean, kontsumitzaileei diziplina anitzeko zerbitzuak eskaintzeko ezintasuna adierazi nahi bada. Paraguas Legeak diziplina anitzeko jarduerak arautzen ditu 25. artikuluan, eta haren arabera, araututako lanbideetan diziplina anitzeko bateraezintasunen araubideak lege mailako arau batek bakarrik finkatu ditzake.

Horrenbestez, bateraezintasunari buruzko erreferentzia oro ezabatzea eta interes-gatazken egoeretara mugatzea proposatzen da.



#### IV. ONDORIOAK

**Lehena.-** Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

**Bigarrena.-** Elkargora nahitaez bildu beharrak lehiarekin zerikusia duten gaiak planteatzen ditu, eta ez merkatura sartzeari dagokionez bakarrik, baita lanbidearen jardunari dagokionez ere, eta horrek interes publikoa eta kontsumitzaileak kaltetu ditzake. Hori dela-eta, muga hori justifikatzen duten eta interes publiko kaltetuak daudela egiaztatzen denean bakarrik onartu ahal izango da hura derrigor ezartzea (lege bidez bakarrik).

**Hirugarrena.-** Edonola ere, elkargodun lanbideetako jardunaren antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

**Laugarrena.-** Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Perituen, Industria Ingeniari Teknikoen eta Industria Ingeniaritzako Gradudunen Kontseiluaren Estatutuetako hurrengo artikulua hauek aldatu beharra planteatu du:

- 2. artikulua.
- 2. artikulua. 3. paragrafoa. (Elkargora nahitaez bildu beharra)
- 4. artikulua. a hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. a hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. d hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. f hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. h hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. k hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. n hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)
- 4. artikulua. u hizkia. (Kontseiluaren berezko eginkizunak)

Bilbon, 2013ko uztailaren 24an

**LEHENDAKARIA**  
**MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**IBON ÁLVAREZ CASADO**

**KIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**